

## Balorezko Proposamena

Guk sortu dugun produktua, itsuak kaletik bakarrik gidatzeko aurikular batzuen bidez sortutako makina bat da. Aurikular horien bidez, itsuek beraiek bakarrik eta txakur barik ibil daitezke kaletik arazorik gabe.



Aurikular hauek pilaz edo bateriaz funtzionatzen dute, ez dute inora konektatzeko kablerik izango eta aurikular horien barruan GPS moduko bat programatuta egongo da itsuak kaletik dabiltzanean oztopoak saihesteko eta programazio hori obra berriak daudenean berriztuko dugu, itsuak jakinean egoteko obrak jarri dituztela toki horietan.

Itsuek ez dute gidatzeko txakurrik edo beste pertsona bat, aurikular honen bitartez laguntza handia izango dute kaletik zehar bakarrik eta nahi dutenean ibil dezaten.

Makina honen bitartez kaletik dihoazenean, GPS aren bidez eta aurikularren bidez, oztopoak saihestuko dituzte, aurikularren funtzioa kontsumitzaileak bere aurrean duenaz abisatzea da. Adibidez; kaletik zoazela eta zure aurrean 10 metrotara obra berriak egiten hasi dira eta gure berrizketaren bitartez, aurikularrak gure kontsumitzaileari ohartarazi egingo dio aurrean obra batzuk dituela eta ezin duela hortik zeharkatu. Orduan kontsumitzaileak badaki nondik joan behar den eta nondik ez.



Baina produktu honek denetatik ohartaraziko dio kontsumitzaileari, adibidez semaforoak non dauden, errepidera ez gehiegi gerturatzeko.

Produktu honen diseinua, aurikular single batzuk dira baina inora entxufatzeko kablerik gabe eta aurikular horien barruan GPS moduko baten programazioa izango du, herrian gertatzen diren obra berriak edo oztopo berriak ohartarazten eta ahots bat oztopoak non dauden esanez GPS arena egiten gure kontsumitzaileak entzuteko.

Produktu honen prezioa, 399 eurokoa izango dela pentsatzen dugu. Garestia dela pentsatuko dute baina produktu hauek munduko bakarrak eta errepika ezinak izango dira eta produktua egiterakoan diru asko gastatuko dugu eta diru hori errekuperatu behar dugu.

